



### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Nola izan garen gauza**

*Euskal gatazkaren inguruko ipuin (ia) gutiak*

Egilea / Autor: **Iban Zaldua**

Saila / Colección: Poltsiko.e, 21

ISBN / EAN: 978-84-9109-774-7

Salneurria / Precio: 14 €

Orri kopurua / N° páginas: 448

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 12,5 x 19 cm

Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos



### Egilea / Autor:

Historia irakaslea da. Zenbait ipuin liburu eman ditu argitara: *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* (Erein 2000), *Traizioak* (Erein, 2001), *La isla de los antropólogos y otros relatos* (Lengua de Trapo, 2002), *Itzalak* (Erein, 2004) eta *Etorkizuna* (Alberdania 2005, Euskadi Literatur Saria). *Ipuinak -Antologia bat-* (Erein, 2010) liburua egileak bildutako ipuinen antologia bat da. Bi eleberriren egile ere bada: *Si Sabino viviría* (Lengua de Trapo, 2005) eta *Euskaldun guztion aberria* (Alberdania, 2008), eta euskal literaturaren inguruko bi saiakerena, *Obabatiko tranbia* (Alberdania, 2002) eta *Animalia disekatuak* (Utriusque Vasconiae, 2005). Volgako Batelariak web-aldizkariko erredakzio batzordeko partaidea da (<http://www.eibar.org/blogak/volga>), bestalde.

### Lana / La obra:

Iban Zalduaren irakurlea bazara, badakizu orriotan barneratzeak zer arrisku duen; besteek kontuan izan itzulerarik gabeko bidaia bat hasteko zorian zaudetela; Zalduaren fikzioak, gaia dena izanik ere, zure errealitatea bera bihurrituko baitu.

Idazleak *Gauza* esaten dion gure gatazka horri buruzkoak dira liburuko ipuinak, bere hainbat bildumatan beste gai/gatazka batzuk oinarri hartuta ondutakoen artean argitaratutakoak. Ez espero ordea titullarren distantziarik, ez pentsa iragana oroigarri hutsa denik; Zalduari eskutik helduz gero, zure orainaldia, etorkizuna, ingurua, ziurtasunak, egunerokoa... jarriko dituzu jokoan; eta helmuga zure etxeko besaulkia izan daiteke, baina dena izango da susmagarria klase ertaineko normaltasun horretan, ez baituzu jakingo fikzioak, are fantasiak, zer zirrikitutatik asaldatuko zaituen. Agian, ezer ez da sinetsi dugun modukoa. Beharbada, fikzioak baino ezin dizkigu zenbait gauza kontatu.

Liburu honetan *guak* arrotzen dira, ironia bisturi zorrotz bat da, minak berrizendatzen dira, ahanzturaz hil zenuena mamu bilakatzen da, epikak lurperatzen dira, familia eta kuadrilla epaile ezjakinak dira. Ez dago narratzaileak bere aldarrikatzen duen minik; beraz, ez dago berea ez denik ere. Zurea ez denik ere.

Eta ipuinak liburua itxi orduko isilduko diren itxaropena baduzu, gaixoa; fikzio batzuek begirada aldatzeko boterea baitute, eta badakigu, historiaren joanean elementu bat bakarra aldatuz gero, zer gerta daitekeen, bai orainaldian bai etorkizunean. Eta kontuz iraganik ahoskatu nahi ez duten etorkizunekin, fikziozkoak baino askoz gezurtiagoak dira.